945132185



# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

N°-4667

AGINDUA, 1999ko urriaren 19koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, igogailuetako sarreretan solairu bakoitzari dagokion adierazgarria jartzeko arauak ematen dituen 1996ko azaroaren 21eko Agindua aldatzen duena.

Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1996ko azaroaren 21eko Aginduaren bidez, igogailuetako sarreretan solairu bakoitzari dagokion adierazgarria jartzeko moduak, adierazgarri horiek bete behar dituzten baldintza teknikoak eta behar diren modeluak onartzeko erregimena arautu ziren.

Agindu horretan aipatzen denez, idazki edo adierazgarri horiek erraz ikusteko, irakurtzeko eta ulertzeko modukoak izan behar dute, era horretan, zein solairutan dagoen jakin ahal izateko eta, bereziki, ikusmen urria duten pertsonek ezagutu dezaten hori.

Merkatuan gaur egun salgai dauden material eta osagarriek eta aipatu diren adierazgarri horiek eta, baliagarriak diren bitartean, behar bezalako kalitate-baldintzak bermatzeko mekanismoak jarri beharrak, altoerliebe ezberdinetako eta kolore konbinazio diferenteetako adierazgarriak jartzea arautu beharra dakarte.

Ondorioz, aipatu diren xedapenen eta oro har aplikagarriak izan eta horiekin bat datozen arauen arabera, zera

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– 1996ko azaroaren 21eko Aginduko 3 artikuluko d) eta e) idatz-zatiak honako era honetan idatzita geldituko dira:

d) «Trazoan erdigunea izango duen altoerliebe batekin nabarmendu beharko dira karaktereak. Altuera eta zabalerak, berriz, 1,5 mm-koak izan beharko dute.

e) Kontraste jator bat eta argitasun on bat lortu ahal izateko, honako hauek erabiliko dira batik bat, alegia, fondoa kolore berde ilunduna izango da eta karaktereak hori hilezkoak. Hala ere, beste kolore konbinazio batzuk ere erabili ahal izango dira, baina kontraste- eta argitasun-maila, lehengoena hainbatekoa edo goragokoa izango dela kredita dadinaren baldintzapean.»

ORDEN de 19 de octubre de 1999, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se modifica la Orden de 21 de noviembre de 1996, por la que se regula la instalación de indicadores de planta en los accesos a ascensores.

Mediante la Orden de 21 de noviembre de 1996, del entonces Consejero de Industria, Agricultura y Pesca se regula la instalación de indicadores de planta en los accesos a ascensores, estableciéndose, las características técnicas que deberían cumplir los referidos indicadores, así como el régimen de aprobación de los correspondientes modelos.

En la referida Orden se establece que las inscripciones o señalizaciones deben ser suficientemente visibles, claramente legibles y de fácil comprensión, todo ello con la finalidad de facilitar el conocimiento de la planta a la que se ha accedido, sobre todo para personas con falta de agudeza visual.

Los nuevos materiales y componentes que hoy existen en el mercado, junto con la necesidad de establecer los mecanismos para garantizar que los referidos indicadores reúnan y mantengan durante toda su vida útil las necesarias condiciones de calidad obliga a regular la posibilidad de que existan indicadores de planta con diferentes altorrelieves y con distintas combinaciones de colores.

En su virtud, de conformidad con las disposiciones citadas y otras de general y concordante aplicación,

DISPONGO:

*Artículo Uno.*– El artículo 3, apartados d) y e) de la Orden de 21 de noviembre de 1996, quedarán redactados como sigue:

d) Los caracteres deben remarcarse con un altorrelieve centrado en el trazo y con una altura y anchura máxima de 1,5 mm.

e) Para conseguir un buen contraste y alta luminancia, se utilizará preferentemente el color verde oscuro como fondo y el amarillo pálido para los caracteres. No obstante, podrán admitirse otras combinaciones de colores diferentes siempre que se acredite el mismo o superior nivel de contraste y luminancia.

*2. artikulua.*- 1996ko azaroaren 21eko Aginduko 4. artikuluko azken paragrafoa honako era honetan idatzita gelditulko da:

Modeluari baimena eman ahal izateko, Itsuen Antolakuntza Nazionalak (ONCE) Euskal Autonomia Erkidegoan duen Lurralde Ordezkaritzari eskatu beharko zaio txostena. 3. artikuluko a, c, e eta h idatz-zatietan adierazgarriari dagokionean aipatzen direnak betetzen direla eman beharko da aditzera berorretan. Beharrezkotzat jotako entseiuak ere egin beharko dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*- Industriak eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritzari esku ematen zaio agindu honetan aipatzen direnak bete eta aplikatu ahal izateko beharrezkoak diren instrukzioak eman ditzan.

*Bigarrena.*- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oso osorik argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko urriaren 19a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

*Artículo 2.* El último párrafo del artículo 4, de la Orden de 21 de noviembre de 1996, quedará redactado como sigue:

Para la autorización del modelo, se recabará un informe de la Delegación Territorial de la Organización Nacional de Ciegos (O.N.C.E.) en el País Vasco, en el que se indique la idoneidad del indicador a lo señalado en los apartados a, c, e, y h, del artículo 3 y se realizarán los ensayos que se consideren necesarios.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*- Se faculta a la Dirección de Administración de Industria y Minas para dictar las instrucciones necesarias para la ejecución y aplicación de la presente Orden.

*Segunda.*- La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su completa publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de octubre de 1999.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## KULTURA SAILA

## Zk-4668

359/1999 DEKRETUA, urriaren 19koa, Kultura Saileko egitura organikoa finkatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko urtarrilaren 4an emandako 1/1999 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra antolatzeko eratuko diren sailen artean, Kultura Saila egongo da. Dekretu horretan, halaber, funtzio eta jarduera-alor orokorren barruan sail horri zeintzuk dagozkion finkatzen da, eta berorri atxikitako Administrazio Instituzionaleko entitateak zeintzuk diren ere zehazten da.

Kultura Sailaren gaur egungo egitura organikoa maiatzaren 30eko 281/1995 Dekretuaren bitartez ezarri zen. Urriaren 14ko 235/1997 Dekretuaren bitartez, berriz, Dekretu hori aldatu zen.

Dena dela, batetik, doikuntzak egin behar dira Sailak funtzionatzeko eta jarduerak banatzeko erabiltzen dituen mekanismoetan, hala eskatzen baitute aurreko esperientziak eta Administrazioaren bilakaera orokorrak

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## Nº-4668

DECRETO 359/1999, de 19 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura.

El Decreto 1/1999, de 4 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, contempla el Departamento de Cultura como uno de los Departamentos en los que se organiza la Administración General de la Comunidad Autónoma y, en consecuencia, le atribuye, dentro de las funciones y áreas de actuación generales, las que le corresponde desarrollar, señalando, asimismo, las entidades de la Administración Institucional que quedan adscritas al mismo.

No obstante, la actual estructura orgánica del Departamento de Cultura viene regulada mediante Decreto 281/1995, de 30 de mayo, modificado por Decreto 235/1997, de 14 de octubre.

Consecuentemente, a los efectos, por un lado, de proceder a efectuar los ajustes necesarios en la mecánica interna de funcionamiento y distribución de actuaciones del Departamento, que devienen necesarios a la luz de